

EUSKAL KOMUNIKABIDEETAKO EUSKARA

Gorka Palazio Arko

Gizarte eta Informazio-Zientzien Fakultateko Irakaslea

Euskara hizkuntza moderno guztien parean jartzen ari zaigu pixkanaka-pixkanaka. Euskal kulturgintzak dirauen bitartean eta euskaldunen kopurua handituz doan arau, euskaldunok komunikabideei kalitatea hobetzea eskatuko diegu. Prozesu honek, nahitanahiez, komunikabideetan erabiltzen den euskarari eta informazioaren tratamenduari gero eta arreta gehiago ipintzea suposatuko du. Komunikabideetako euskarak duintasuna eta erabilera zehatza eta ona erdiesten dituen heinean bakarrik lortuko dugu herri berjabe eta normalizatu bezala irautea. Apostua gogorra da. Aurrerantzean, telebista, irratiak eta kazeta (ia egunkari bihurtu zaigun kazeta bakarra) filologo, informazio-zientzilari eta adituen ikergai bihurtu behar dira. Komunikabideetako kazeta-jeneroak, euskalkien arazoa, hitz mailegatuen ebakera eta idazkuntza, geografi izen arrotzak, sintaxi arazoak etab. gogoeta egiteko gaiak dira guztiak. Ondorengo artikuluan aipaturiko gai hauetarako hurbilketa xume bat baino ez du egiten egileak.

Geure hizkuntzaren egoera diglosikoa zein puntutaraino heldu den jabetzeko ikusentzutekoei arreta ipintzea baino ez da. Euskal hedabideetako hizkuntzaren erabilerak hausnarketa sakona eragin behar digu kazetarioi gure euskera hobetzeko.

Euskal komunikabideetako euskara nahiko estandarizaturik agertzen da dagoeneko. EITB erakundeak erroak bota ditu ikusentzule-kopuru dexente batengan eta hasierako zalantzak eta beldurrak (zein lexiko izango ote, euskalkiak erabiltzea zilegi ote, adizki batuak erabili behar ote...) desagertuz joan dira eta hainbat kazetari alfabetaturi esker, bai telebistaz bai irrati, gehienentzat ulergarriak diren albistegiak egitea lortu da. Kontu honetan prentsa idatzian izan den produkzioak bidea zabaldu die ikusentzutekoei, hiru komunikabide nagusiak (prentsa idatzia, telebista eta irratia) bide beretik elkarrekin joan ahal izan direla. Honek euskara batuaren edo komunikakorra izan behar duen euskara amankomunaren erroztapena ekarri digu.

Euskara, komunikatzeko tresna gaitua

Egitura gramatikalak eta lexikoa aldatuz doazela zalantzarik ez dago, hizkuntza bizi guztietan ematen dira barne-mugimenduak, garai batean okerkuntza zena ontzat ematerainoko bidea egin da sarri askotan. Eta gure garai honetan zalantza gehiegi agertzen zaizkie kazetari euskaldunei; adibide bat jarritz, egun ematen den

joera nabari bat honakoa da, gipuzkoarrek erabili ohi duten adjektiboen adverbializazioa [*polita zaude, polita jantzi zara* etab., hauen ordeztatu polito adverbioa erabili behar delarik (joera hau Ameriketako gaztelanian ere ematen da baina euskaran baino hedatuago dago: "que te vaya bonito", "conversa sabroso", "lo pasamos bárbaro", azken hau iberiar penintsulan esaten delarik)]. Lexikoari gagozkiola, euskarak hitz berri asko ontzat eman ditu, orain belaunaldi batzuk erabiltzen ez zirenak (garatu, garrantzi, aberri, idatzi...). Beste joera bat, laburketak barra-barra erabiltzekoa da: zine, moto, foto etab.. Beraz, denboraren joanean bai egitura gramatikalak bai lexikoa mugituz doaz. Hala eta guztiz ere, *koinea* lortu nahi den honetan badirudi gelditze eta estandarizazio baterantz goazela; hau normala da, zeren azken buruan, euskaldun askok beren hizkuntza nazionala izan dadin nahi bait dute, honek suposatzen duenarekin, hots, euskarari gaitasuna ematea bizitzako funtzio guztietarako eta ez familian edo maila pertsonalean geratzen uztea. Euskarak hizkuntza nazionalaren funtzioa betetzeko komunikabideen arloa irabazi behar du. Erronka handia da eta honez gero garaia ere heldu zaigu komunikabideak hobeto eta sakonki aztertzeke maila guztietan. Hemen, gu, komunikabideetako kazetarien lengoaiatz ariko gara.

Prentsa idatziak aitzindari izan behar du hizkuntzari zuzentasun ortografikoa bilatzen, idatzitakoak aukera gehiago ematen bait digu akats eta oker gramatikal eta ortografikoak

ekiditeko. Ikusentzutekoak, ostera, ortoepia edo ortologiari¹ atxekitzea permititzen digu; ikusentzute-koetan denbora gutxiago dugu hizkuntza arradatzeko edo pulitzeko, okerkuntzak ekiditeko, lexikoa ondo erabiltzeko. Nork ez du entzun Euskadi Irratitik behin eta berriro *Solidaridad* hitza Poloniako sindikatu ospetsu eta dontsu hori izendatzeko, kanonek agintzen duten bezala *Solidarnosc* /s'oliðarnos'/ ebaki orde. Kazetariak, maiz, une batez ere ez dira geratzen pentsatzen esaten dutena ondo dagoenentz. Irratilarien euskarak, erraza eta oso komunikakorra izan behar duela behin eta berriz esandakoan, irratilari batzuek hainbeste barneratu dute arau hau ezen okerkuntzarik sinpleena ere onesten bait dute. Bide beretik segituz, ez dakit zer dela eta jo behar duten hainbestetan gaztelerara erakunde, sindikatu, sigla eta bestelakoak izendatzeko orduan, zentzuzkoena jatorrizko hizkuntzari atxekitzea edo itzulpena egitea dela edonori bururatu ahal bait zaio. Argi dago askotan zaila dela jatorrizko era zein den jakitea, poliglota izanagatik guztiok bait ditugu gure mugak (hau erraz uler daiteke geografi izen arrotzetan, leku-izen batzuen jatorrizko era lakatzea oso zaila bait da); hortaz, batzutan bitarteko erak² onartu beharrean egon arren, ikerjoera izan behar dugu kazetagintzan, zalantza eta era arrotzekin nola jokatu behar dugun behin eta berriz kontsultatuz arazoari irtenbide eman arte.

Askotan izen arrunt berriak agertzen dira komunikabideetako idazgeletan, euskarara itzuli behar ditugunak, eta gure hiztegiek oraindik jasotzen ez dituztenak, lexikoa aberastuz doazen hitz bakan eta zailak dira, zientzietakoak, kirolgintzan erabiliak, informatikatik datozkigunak etab. Adibide batzuk ipintzearen aipa ditzagun honakoak: *jacuzzi*, *faktore*, *revival*, *fjord*... Gure lexikoan oraindik oso bakanka agertzen diren hitz hauek zelan idatzi eta ahoskatu behar diren auzi garrantzitsua da garai honetan. Dena den, egon badago joera bat arazo honi dagokiona: jatorrizko erak mantentzea. Beraz, ilogiko samarra litzateke orain *jakuzi*, *guiski*, *koinak* eta honelakoak idaztea, eta hau izen arrunt-arruntekin gertatzen bada berdintsu jazotzen da mailegatu behar diren kultur hitzekin:

"hitzaren eredia hartzeko zuzenean iturrira jotzea gomendatzen du Euskaltzaindiak, hots, latin eta grekora. Ez du nahi Euskaltzaindiak hitzok zuzenean frantses eta gaztelaniatik har daitezen, zuzenean iturritik baizik"³.

Izan ere, idazgeletan lauzpabost hiztegi eta entziklopedia on bat edo bi egotea behar beharrezkotzat jotzen dut, baliabide materialez gain, hainbat alditan aipaturiko filologo-zuzentzaile taldea egotea ere oso positiboa litzatekeelarik. Katalunian bezala, euskal irratigintzan eta gainerako komunikabideetan geure hizkuntzaren lexikoa zaintzea zeregin premiazkoa dugu.

Erदारakadak eta geureak diren hitz mailegatuak

Frantsesa eta gaztelania hizkuntza boteretsuak eta eragin handiegikoak direnez gero, euskarak, ezinbestez, bai sintaxi mailan bai lexikoan, berauen hatza barneratu behar izan/izango du. Esamoldeak, hitz mailegatuak, aditzak eta abar hizkuntza hauetatik etorri zaizkigun asko, euskal hitz eta esamolde jatorritzat ditugu jada.. Halarik ere, erदारakada nabariak, ekidin beharrekoak ere badira tamalez, egunero han-hemenka topatu ohi ditugunak. Komunikabideetako kazetari batzuek erdarakada gehiegi erabiltzeko joera agertzen dute. Ez da batere arraroa euskal prentsan ondokoa ikustea: "hiru hilabete itxaron beharko da...", "...ospea eta heriotzaren artean" etab. Itxaron aditza hobeto erabiltzeko "hiru hilabetez itxaron beharko da..." esan/idatzi behar du kazetariak; eta bigarren esaldia ondo ipintzeko aukera bi baino ez ditugu (inola ere ez hor jarri berri duguna): "...**ospe** eta heriotzaren artean" edo "...**ospearen** eta heriotzaren artean". Lexikoan ere nabaritzen dira erdarakadak edo nahiago bada, hitz mailegatuaren soberako erabilera. Esaterako: *konpromisari, epoka, tripartito, pilotan mano-mano jokatu, Baxenafarroa, tailer...* Hitz hauek erabili ordez, *ordezkari, garai, hiruko gobernu (hirukuna, hirukoitza), banaka jokatu, Nafarroa Beherea edo Behenafarroa, lantegi...* berbak esatea edo idaztea askoz ongarriago zaio euskararen osasunari. Adibideak asko diren arren, aitzitik, badira beste hitz

asko, gure hiztegieta sartu eta erabili behar ditugunak, gehientsuak hiztegi-gile euskaldunek bilduak izan direlarik. Hitz hauek, batez ere ñabardurak edo arlo semantikoak handitzeko eta adierak zehazteko balio digute: *okupatu-okupatzaile, kontserbatu, bandera, gerra, desertore, diputazio, palazio, gobernu, kostalde etab.* Azken berba hauek *hartu, gorde, ikurrin, gudu, iheslari, aldundi, jauregi, Jauralaritza eta itsasalde* hitz baliokidetsuei adiera kendu diete, autonomi semantiko banaz jabetzeko. Egun, edonor kontura daiteke *bandera* eta *ikurrin* berben ezberdintasunaz, baita ere *okupatu* aditza *squatterren* mugimenduaz ari garenean erabili beharra dagoela, edo, *casa señorial, palacio de deportes, mansión, residencia suntuosa, palacio de justicia...* ez ditugula zertan beti jauregi hitzaren bidez euskaratu behar. Aipaturiko hitz mailegatu guzti hauek geure-geureak ditugu, hiztegi batean edo bestean topatu ahal ditugarik. Hortaz, kazetariak ez diete zertan muzin egin behar. Arlo semantikoak apurtuz eta berriak sortuz, arlo hauek biderkatuz gero, euskara aberastu egingo da. Hitz berrien bereganatzeak on egingo dio euskarari, osterantzean, lotu egingo, pobretuko. Euskal atsotitz bat gogoratuz eta itxuraldatuz, "atsegina bikun da kontzeptu berriak eta ñabardurak adierazteko gauza garenean".

Tamalgarria dena, ostera, euskal berba zenbaiten adierak galtzea edo berdintzea da. Esaterako, *zur* (madera) eta *egur* (leña) hitzak ondo ez erabiltzea (*egur* hitzak *zuraren* adiera

bereganatu ohi du), edo bizkaitarrek hermano/hermana adierazteko egiten duten bereizketa alde batera uztea (anaia/neba eta ahizpa/arreba). Kazetariak gogoan izan behar dituzte hauek guztiak informazioa lantzeko orduan.

Kazetarien lengoaia. Lexikoa.
Literatur joera zenbait
kazeta-jenerotan

Kazetal komunikazioak antz txikia du literaturan erabiltzen den lengoiaz. Literaturak sortzen duen komunikazioan erregistro-aldaketak zilegi dira, literatur figurak sar daitezke, eta testua, ahozkoa zein idatzia, apaingarriz beterik joan ohi da, adjektiboak, aditzondoak etab. maiz agertzen direlarik. Kazetari-informatzaileen lengoaia bestelakoa da, neutraltasuna eta inpartzialtasuna lortzeko joera dagoenez gero, adjektiboak, *value words* edo baloredun hitzak, aditzondoak, norberaren eritziak etab. ekidin beharrekoak dira. Oro har, joera hau eman arren, komunikabide handiek zein txikiek, batez ere prentsa idatzikoek askotan pot eragiten digute hainbeste eritzi, adjektibo eta baloredun hitzekin (terrorismo, erahilketa, izugarria, erradikala, aurrerakoia, atzerakoia...). Gainera zenbait kazeta-jenerotan literatur joera nabaritu da geroago ikusiko dugunez.

Ondoren ikus ditzagun lexikoan ematen diren zenbait joera. Gehienak prentsa idatzian gertatzen diren arren,

batzuk irratian ere ematen dira gero eta gehiago. Hauetako asko Jon Sarasua ikerlariak kazetal hizkuntzari buruzko lan batean azaltzen ditu⁴:

1.- Testuari tonu enfatikoak emateko joera. Hitz ponposoak eta karga semantiko handiegia duten hitzak erabiltzeko joera:

"... entzun ditzagun ondorengo deklarazio adierazgarriok".

"... biharko egunean jokoan ipiniko da Aljeriaren geroa bertan egingo diren hauteskunde erabakiorretan".

Esaldi hauek esan direnean elementu paralinguistikoak ageri-agerian izan dira, enfasia⁵ nahiko argia izan delarik.

2.- Zenbait hitz gehiegitan eta askotan lekuz kanpo erabiltzeko joera.

Adibideak:

Ikurrin: "errioxarrek duela urte gutxi lortu zuten eurek ere ikurrin bat izatea" esaldian ikurrin hitza erabiltzea larregizkoa da, bandera hitza ere agertzen bait da gure hiztegietan.

Arritmia: "bistakoa da azken urteetan gure ekonomiaren arritmia...", honen ordezt "gure ekonomiaren gorabeherak" esan daitekeelarik.

Atrofia: "...esan duenez, hauexek dira euskal politikagintzaren atrofiaren ezaugarriak", honen ordezt "...politikagintzaren endurketaren ezaugarriak" esan

daitekeelarik. Atrofia hitzaren esangurak nutrizio ezarekin du zerikusia.

Kanibal: hitz hau gizajale eta antropofago hitzen baliokidetzat jo ohi da (Antilletako basatiari baino ez zaio aplikatu behar). Andeen Mendikateko istripu lazgarri hura gertatu zenean ilogikoa izango zatekeen "kanibal bihurtu dira" esan zezaten, honen ordez antropofago edo gizajale hitzak askoz hobeto esan zitezkeelarik.

3.- Nolanahi sorturiko eta eratorririko hitzak erabiltzea:

Industrializatu aditzaren erabilera *industriaztatu* eraren ordez.

Antizikloi hitzaren ordez *zikloi-aurkako* edo antzerakoak erabiltzea ere gaur egun baztertzeko joera daiteke.

Egile-atzizkiak nahastea (jasatzaile era jasalaren ordez, manifestalari manifestatzailearen ordez, igortzaile igorleren ordez etab.).

Elkartasuntsu eta horrelakoak sortzea *solidari* hitza ekiditeagatik.

4.- Hitz askori, berez eta jatorriz esan nahi ez dutena esan eraztea:

Sofistikatua: sophos (sofisma) hitzetik datorkigu "abilezia, faltsua edo petarta dena egiazko agertarazteko"; gaur egun, ingelesek erabiltzen duten era bitxia ere darabilgu: natural-

tasunik ez daukanari esan ohi zaio, baita oso korapilatsu eta estudiatua izan denari ere. "Oso diskurtso sofistikuak" esaldian, egia esan, hitz honek dituen bi adierak ostendu egiten digute deskodifikazioa, bata zein bestea izan bait daiteke (faltsua edota korapilatsua-berezia). Hau, oster, ez da gertatzen "oso misil sofistikuak bi aurkitu dituzte" esaldian; neologismoaren adieraz baliatzen garen arren ez dago nahasterik.

Eskuragarri erabiltzea gaztelaniaz aseguible erabiltzen den bezalaxe, hau da, xehe edo atsegina den pertsonari esatea.

5.- Hitz tekniko eta politikoak sartzea, hizkera politiko eta administrati-boaren morrontzaz eta imitazioz. Joera hau honako puntuetan oinarritzen da:

5a. Fatalismoa darien hitzak (endemiko, tamalgarri, lazgarri..)

5b. Disuasioa bilatzen duten adjektiboak (atzerazinezko prozesu, ukazinezko, eskurazinezko..)

5c. Hitz-elkarketan ekiditea: *administrazio-zerbitzuak* era zuzena esan ordez *zerbitzu administratiiboak* esaten denean bezala.

5d. Fisikako eta horrelako zientzietako terminoak kazetaritzara ekartzea.

5e. Anfibiokeriak eta anbiguitateak. Esangura bat baino gehiago dituzten hitzen erabilera: marko, bide...

5f. Esoterismoa: enigmazko joera, berba ilunen erabilera (ezanarkikoa).

5g. Eufemismoa: komunikabideetan lan egiteak jende askok ikusentzuna izatea suposatzen duenez, gizakiok badugu joera bat, jende aurrean erakutsi ohi duguna, zenbait hitz eta tabu beste hitzez (apaingarriz) edo perifrasi baten bidez esateko edukien leuntzea bilatzea alegia (prezioen igoera esan ordez, prezioen egokipena esaten denean bezala; edo politikarien negozio zikinez ari garenean kaka edo zikinkeria erabili ordez ezpurutasun hitza erabiltzea; edo simaur⁶ esan ordez, ongarri esatea). Hala eta guztiz ere, ene ustez, berauen erabilera euskal hedabideetan nahiko maila apalagoan dago gaztelaniazko komunikabideetakoekin konbaratuz.

5h. Anglizismoak erabiltzeko joera: Staff (zuzendari-talde edo arduradun-talde). Starlet (izar gazte edo izargai). Lobby (politikari-taldetxo / korridore, pasabide edo barnebide).

Hitz mailegatuei dagokienez, oraindik kriterioak ondo finkatu gabe ditugula esan behar dugu. Arestian argitara eman den *Euskaldunon Egunkaria*-n adibide asko topatu ahal ditugu egunero beste hizkuntzatatik datozkigun hitzak euskaratu beharrean aurkitzen bait dira egunero kazeta gazte honetako berrikerariak. Arazo honetan bi joera ditugu aurrez aurre; alde batetik, jatorrizko erak errespetatu nahi dituztenak ditugu, eta bestetik euskarazko aldaketak egitearen alde agertzen direnak. Bi joera hauek idazkuntzari gagozkiola, zeren

ebakerari begiratzen badiogu hiru joerarekin topatzen bait gara: aurreko biak eta uste dutenak hobe dela grafia aldatu gabe jatorrizko ebakera egitea.

Idazkuntzari bagagozkio eta adibide bat ipintzearen, kazetariak zalantza asko eduki ohi du hitz hauekin, ingelesezko cross berba idatzi beharrean aurkitzen bada, seguru asko kros idatziko du (EGUNKARIAN honela agertzen da). Halarik ere, nire ustez, kasu honetan gehientsuenetan bezala, beste joerari atxeki behar gatzaizkio, hots, *cross* idazteari. Salbuespenak, oso arruntak diren maileguak izan daitezke (*futbol, leber, kaxete...*). Nahiko bitxia litzateke basketbol idaztea, *kros* berba ikustea bezain bitxia ziur asko. Kazetari euskaldunok ez diegu zertan muzin egin behar jatorrizko era arrotz hauei (*cross, jacuzzi, pogrom ...*), aldiz, baztertu egin behar genuke era arrotz hauen moldatzea (*kros, jakuzi, pogromo...*).

Hitz berri eta mailegatu hauen ebakerari dagokionez, bakarrik esan, kazetariak ahaleginak egin behar dituztela hitz hauek jatorrizko hizkuntzetan nola ahoskatzen diren jakiteko. Zeregin honetan asmatzen duen kazetariak arrakasta segurtaturik dauka zalantzarik gabe.

Bestalde, eta lexikoa alde batera utzita, egunkarietan ezezik irratian ere hasi da nabaritzen beste joera bat: zutabe edo *columna* izeneko jeneroa, edo nahiago bada irazkina, puri-purian dago. Euskadi Irratian esaterako kazetari ospetsu zenbait (Felix

Ibargutxi, Pako Aristi..) irazkinak egiteari lotu zaizkio azken aldian. Kazetal testu hauek, gaztelaniazko prentsan bezalatsu, gero eta joera nabariago bat dute:

Orain kondaketa koloretsua nagusitzen da, plastikoa, intelektora baino gehiago irudimenari eta sentiduei deitzen dieten figura erretorikoz beterik. Literatur sustraipenean oinarrituriko estetizismoa nagusitu zaio kazetal kontaktari. Postmodernitatearen estetikarekin dago erlazionaturik hau guzti hau⁷.

Manuel Casadoren gogoeta honekin segituz, argi geratu da prentsa idatzian sapa duen moda honek eragin izan duela egunkari-irakurleen baitan, berauek, gaur egun, literatur testuen antz handia duen kazetal lengoia atsegin izaten dutelarik. Esan bezala, euskal komunikabideetan ere ematen da joera hau, kazetari-idazleen figura ondotxo kotizaturik agertzen zaigula; Pako Aristi kasurako, esandakoaren exenplu izan daiteke.

Irratian erabiltzen den euskara

Argi dago irratia mota ezberdin batzuk daudela, funtzionamenduak, linea ideologikoak, programazio motak etab. oso bestelakoak izan daitezkeelarik batzuetan zein besteetan (irratia libreak, instituzionalak, merkatal irratia, udal irratia, eskoletako irratia, kanporako irratia, eskualdeetako irratia). Hortaz, euskarak ere ezberdina izan behar du

irratia moten arabera baita irratia motaren arabera ere.

Honela jarraikiz gero, Euskal Herrian euskalki batzuk desagertzearegongo dira laster, eta hau dela eta, irratiek erronka handia izan behar dute prozesu honetan. Irrati nazionalaz gain, ongarria da eskualde edo lurraldeetan beren euskalkian emititzen duten irratia egotea. Zalantzarik ez dut Bizkaia Irratia edo Ipar Euskal Herriko irratiek zeregin handia dutela eta beren euskalkiei atxeki behar dietela. Beraz, orain arte egindako lanari oso ondo deritzot; halarik ere oraindik badago non hobetu; adibide bat jartzeagatik aipa dezagun gure irratia nazionala. Euskadi Irratian eskualde eta lurraldeetako korrespondentsalek batuerazko adizkiak eta Euskaltzaindiak onetsitako beste arauak ondo jakiteaz gain, kazetaria dagoen lurraldeko euskalkia ere menperatu behar lukete, batez ere lexikoan aportazioen bat egitearren. Bizkaieraz hitz egiten dutenen kopurua oso altua denez, ongarria litzaiguke hedabideetatik bizkaieraz erabiltzen diren hitz batzuk erabiltzen hastea. Zeregin hau irratia-arduradunek bultzatu behar lukete eta filologoen aurrera eraman. Dena dela ezagun da dialektokeriak azken urteotan baztertuz joan direla nazionala izan nahi duen Euskadi Irratian eta albistegietan oso bakanka entzuten direla: litzake, degu, dezute etab.

Irratietako albistegietan, euskara batua ala euskalkiak zein erabili afera alde batera utzita, hautatzen den euskera hori joria, sinplea,

komunikakorra eta erraza, zelako euskera erabiltzea ere ohizko galdera izaten da irratilarien artean.

Euskaldunon Egunkaria deritzon kazetako lehen zenbakietan polemika handia sortu da palatalizazioaren inguruan. Yeismoaren fenomenoaren inguruan ematen dutenak agertu dira alde batetik, eta bestetik aurka egiten dutenak. Gai hau oso garrantzitsua da irratiko esatarientzat zalantzarik gabe. Irratia ahozko eredu bihurtzen da euskaldunberri eta euskaldunzahar askorentzat, eta honexegatik hain zuzen, hizkuntzalariek, euskaltzainek eta informazio-zientzilariek ondo ikertu behar duten arazoa da hau. Mutiya, oio, Peio etab. ahoskatzea erdarakada nabaria baino ez dela uste dut. Hitz hauetan egin beharreko ebakera, euskara jatorrak eskatzen duena, logikoena eta ohizkoa izan behar dena ondokoa da: mutilla, oillo, Pello... Yeismoa ekiditea kazetarietara bultzatu behar duten eta atxeki behar dioten zeregin edo joera da.

Lexikoari dagokionez, badira irratilariak hitz jatorrak eta gutxi ezagunak direnak promozionatu nahian daudenak. Hitz hauek ez dira inola ere garai batean garbikeriatzat jotzen zirenak, hots, Sabin Aranaren garaian asmatuak (Ikastetxe Nagusi = Unibertsitate, Aldizkari Nagusi = Boletín Oficial, Ludi = Unibertsio), baizik eta herrietan oraindik sustraiturik dauden hitz jator eta zaharrak, hauetariko batzuk inongo hiztegitan agertzen ez direnak. Orain dela zenbait urte *estrainekoz* esan bagenu baseritarkeriatan eta

sektarismoan eroriak ginela pentsa genezakeen, orain, ostera, albistegietan ere entzuten den hitza da. Literaturan modan jarritako hitzek ere lortu ahal dute baliagarritasuna informazioak emateko. Hori bai, hitz hauek lehenengoz esaten hasten direnean komenigarria da hitzaren ondorenean bere baliokide edo sinonimoa esatea, entzuleak, batez ere irratikoak, ulergarritasunik handiena eman diezaiozun eskatzen bait du. Bestalde, beste era batean pentsatzen dutenak ere badira, hitz hauei, zaharkituak eta gutxi erabiliak diren hitz hauei muzin egiten dietenak. Gainera, talde honetan batez ere beste zer bat gertatzen da: maiz sinplekerietara jotzen da, hitz banaka batzuk, bost enplegurekin erabiltzen ditugula; beti hitz berberak, erdal arloan esangura anitzekoak izan arren. Adibide baten bidez hobeto ulertuko dugu hau. Demagun *elkarte* eta *batzarre* hitzak *comunidad*, *sociedad*, *asociación*, *club*... eta *reunión*, *asamblea*, *congreso*... esangurekin darabiltzagula, zalantzarik ez dago honela geure hizkuntza pobretu egiten dugula, zeren Aita Villasantek dioskunez:

"Hitz berberari hamaika enplegu ematen badizkiogu, hortik, jakina, zehaztasun-falta segitzen da eta orduan hizkuntzak ez du ezertarako balio"⁸.

Izan ere, irratietako albistegietako hitz, esamolde eta egitura gramatikalek sinpleak eta ahozko lengoaiaren antza gordetzeko joera dutenak izan behar duten arren, komeni da lexikoa aberastuz joatea, hiztegietan kontsulta gehiago egitea eta Euskaltzaindiak emaniko arauetarik ez irtetea.

Oharrak

- 1 Hitzak ondo edo zuzen ebakitzea.
- 2 Bitartekariarena egiten duten hizkuntzetako erak; adibidez, Ceilán edo Ceylon idazten dugunean estatu asiar honetan izen ofiziala Sri Lanka dela ez bait dakigu (ezta X. Mendigurenen zerrendan Ceylan agertzen dela ere).
- 3 VILLASANTE, Luis A *Euskararen auziaz*. Eleizalde bilduma. Lizarra(Nafarroa), 1988, 253 eta 254 orrialdeetan.
- 4 Gaztelaniazko adibideak kendu ditut euskarazkoak jartzeko (neuk osatua da).
- 5 Esaten denari garrantzi berezia ematea tonu, keinu edo esamolde bidez.
- 6 Sats edo gortaits.
- 7 CASADO VELARDE, Manuel. *Nuevas tendencias del lenguaje periodístico*. Gizarte eta Informazio-Zientzien Fakultatean emandako hitzaldia. 1.990.go maiatza.
- 8 VILLASANTE, Luis. *Euskararen auziaz*. Eleizalde bilduma. 84. orr., Nafarroa, 1988.

Bibliografia

- ALTUBE, S; *Erderismos*, Indautxu argitaletxea, Bilbo 1975
- GARATE, G; *Erderakadak*, Mensajero argitalpenak, Bilbo, 1988.
- VILLASANTE, L; *Euskararen auziaz*, Arantzazu Argitaletxe Frantziskotarra, Oñati (Gipuzkoa), 1988.
- CASADO VELARDE, M; *Tendencias en el léxico español actual*, Coloquio argitaletxea, Madril, 1985.
- HAENSCH, G., WOLF, L., ETTINGER S. eta WERNER, R; *La lexicografía*, Gredos argitaletxea, Madril, 1982.
- MARTINEZ ALBERTOS, J. L; *El lenguaje periodístico*, Paraninfo argitaletxea, Madril, 1989. .
- MARTINEZ DE SOUSA, J; *Dudas y errores del lenguaje*, Paraninfo argitaletxea, Madril, 1987.